

Bertso Saioak



uztaia-abuztua



#BilbaoUda2020 

B
Bilbao

UZTAILAK 15 19:00

(Euskal Museoko atrioa)

“GORRIA”

BERTSOLARITZA ETA FLAMENKOA USTARTUZ

BERTSOLARIAK:

MIREN AMURIZ, ASKOA ETXEBARRIETA

Muin berbera dute adierazpide biek, bat-batekotasunean, hor egin dute topo Miren Amuriza bertsolariak eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzariak.

Ikuskizunean zehar, nor bere hizkuntzan kantatzen edo dantzatzen hasi eta kode konpartitu eraikitzen joango dira bi-bientzako funtsezkoa den moldea oinarri hartuta: koplak. Kolore gorriaren sinbologia hari moduan baliatu (bizitza eta heriotza, arriskuak eta debekuak, karga ideologikoa, lotsa, desira...) eta banako zein kolektibo moduan zeharkatzen gaituzten gatazkez arituko dira bi sortzaileak, gitarra eta perkusio soinuekin lagunduta eta eszenaratze soil bezain zainduarekin.



UZTAILAK 16 19:00

(Basarrate plaza)

TXAPELDUNEN BERTSO JAIALDIA

BERTSOLARIAK:

**JULIO COTO, IÑAKI VIÑASPREE, SUSTRAI COLINA,
ONINTZA ENBEITA, BEÑAT GAZTELUMENDI**

Euskal Herriko herrialde ezberdinetan Bertsolarien txapelketak jokatzeko dira maiztasun batekin. Txapelketa horietako partaideak izaten dira lehian 4 urtetik behin ospatzen den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Guk herrialdeetako egungo txapeldunak bilduko ditugu bertso saio batean gaitzartzaile baten gidaritzapean. Txapeldunen saio batetaz gozatzeko aukera paregabea.

5

HERRIALDEETAKO
FINALISTEKIN



ABUZTUAK 19 19:00

(Bidebarrietako Liburutegiko aretoa)

BERTSO-LITERATUR TOPAKETA

BERTSOLARIAK:

**MAIALEN LUJANBIO, UNAI ITURRIAGA,
KARMELE JAIJO**

Bertso-saio literarioetan idazle batek kantuan jarriko ditu bi bertsolari. Kasu honetan Karmele Jaioren aginduetara, bat-batean arituko dira kasuan-kasuko bertsolariak. Idazleek pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatuko dizkie bertsolariei. Hiru autoreren arteko elkarlana izango dira saiook: hiru ahots elkarlanean. Erregistro guztiak lantzeko ahalbidea ematen duen saioa da: umorezkoa, poetikoa, narratiboa, akziozkoa, dialektikoa...

Bertso-saio baten ohiko moldeak hautsi gabe (bat-bateotasuna, kontestura egokitzea etab.), literaturaz gozatzeko aukera eskaintzen da.

IRAILAK 2 19:00

(San Pedro plaza, Deustu)

“EZ DA KASUALITATEA”

BERTSOLARIAK:

**UXUE ALBERDI, MIREN AMURIZA, MADDALEN
ARZALLUS, ONINTZA ENBEITA**

“Ez da kasualitatea” bertso saio musikatua da. Lau bertsolarirekin batera bi musikari aritu ohi dira (biolina eta gitarra). “Ez da kasualitatea”ko lau bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira. Hortik izenburua, oraindik, zoritxarrez, gehienetan gizonaek osaturiko saioak baino ez baitira kasualitatez izaten.

Umorea, jolasa, gogoeta, emakumeon arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa.

Sarrera: DOAN

Edukiera mugatua

+info: bilbaokultura.eus

Bertsoa eta Literatur topaketak

Maialen Lujanbio
eta
Unai Iturriaga

Gai-jartzailea: Karmele Jaio

FORMATU
HANDIAN

EZ DA KASUALITATEA

BERTSO SAIO MUSIKATUA

UXUE ALBERDI MIREN AMURIZA MADDALEN ARZALLUS ONINTZA ENBEITA

